



“BILBAO BIZKAIA UR PARTZUERGOAREN HORNIDURA LABORATEGIAN LAGUNTZA TEKNIKOA EMATEA HORNIDURA SISTEMETAKO URAREN OSASUN-PLANAK SORTZEKO, EKUIS-EN INFORMAZIOA KUDEATZEKO ETA OSASUN SAILAREKIN JARDUKETAK KOORDINATZEKO” DERITZON ZERBITZUA KONTRATATZEKO ADMINISTRAZIO-BALDINTZA BEREZIEN PLEGUAREN KARATULA. ESPEDIENTEAREN ZK.: 3245.

Harmonizatuko araubidearen menpe dagoen kontratua	☐ BAI ☒ EZ
Espedientearen izapidea	☒ Ohikoa, ☐ Premiazkoa, ☐ Larrialdia, ☐ Aurreratua
Mota	☐ Irekia ☒ Ireki sinplifikatua (SPKLren 159.1. art.) ☐ Ireki supersinplifikatua (SPKLren 159.6. art.)

A.- BOTERE ADJUDIKATZAILEA	
1.- Botere adjudikatzailea:	Consortio de Aguas Bilbao Bizkaia/ Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoa
2.- Kontratazio-organoa:	☐ Zuzendaritza Batzordea ☐ Presidentea ☒ Gerentea
3. - Kontratuaren arduraduna:	Estibaliz Alda Tobar
4.- Kontratazioko Zuzendariordetzako harremanetarako datuak:	www.contratacion@consorciodeaguas.eus Kontsulta administratiboak eta teknikoak: telefono- zk.:94 4873100
5.- Kontratatzailearen profila:	www.consorciodeaguas.com www.contratacion.euskadi.eus

B.- KONTRATUAREN XEDEA
1.- Kontratuaren xedea: Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoaren hornidura-laborategian laguntza teknikoa ematea hornidura-sistemetako uraren osasun-planak sortzeko, EKUIS-en informazioa kudeatzeko eta osasun-sailarekin jarduketak koordinatzeko 2.- Bete beharreko premiak: Kontratu honen xedea da Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoak (BBUP) kudeatzen dituen udalerrietako horniduren Uraren Osasun Planak (UOP) egitea. Partzuergoa udalerri horien Kontrol eta Zaintza Unitatea (KZU) da. Berrogei hornidura-sistemei dagozkien berrogei agiri inguru dira eta 90 udalerri barne hartzen dira gutxi gorabehera. Kontratu honetako lanak hauetan ezarritakoa oinarri hartuta egingo dira: 178/2002 Errege Dekretua, 3/2023 Errege Dekretua eta hornidura-zona batean uraren osasun-plana egiteko gida praktikoa adierazitako zuzentaraua. I. liburukia. Ebaluazio erdi-kuantitatiboa. Osasun Ministerioa. 3.-Lotetan banatzea: ☐ Bai ☒ Ez Lotetan banatu ez izanaren justifikazioa: Kontratua lotetan banatzeko aukera ez da bideragarria, eta, beraz, ez da lotetan banatuko.
4.- CPV: 71356200-0 Laguntza teknikoko zerbitzuak.
5.-Aldagaiak edo alternatibak onartzea: ☐ BAI ☒ EZ
6.-Izaera juridikoa ☒ Administratiboa ☐ Pribatua



C.-KONTRATUAREN PREZIOA	
1.-Lizitazio-aurrekontua (BEZik gabe)	EHUN MILA EURO (100.000 €), BEZik GABE.
2.-Kontratuaren balio zenbatetsia: 100.000 euro	
3.-Prezioa zehazteko sistema: ☐ Honenbesteko prezioa ☒ Unitate-prezioak	
4.-Urteko kopuruak eta aurrekontu-kontsignazioa: Kontratuaren urteko aurrekontuak eta kontratuaren gastuaren aurrekontu-aplikazioa hauek dira: 16913 22707. - 2026: 33.333,33 €. - 2027: 50.000 €. - 2028: 16.666,67 €.	
5.-Prezioak berrikustea: ☐ BAI ☒ Ez	
6.-Kanpoko funtsekin finantzatzea: ☐ BAI ☒ EZ	
7.-Ordaintzeko modua: Arrunta, hileko ziurtagiri bidez.	
8.-Ordainketak kontura: Ez da aplikatu behar	

D.-KONTRATUAREN EPEA
1.-Iraupen osoa: Bi (2) URTE.
2.-Epe partzialak. ☐ BAI ☒ EZ
3.-Luzapena ☐ BAI ☒ EZ
4.-Berme-epea: Ez da aplikatu behar
5.-Kontratua betetzeko tokia: BBUPren instalazioak
6.-Partzialki jaso daitezkeen lanak ☐ BAI ☒ EZ.

E.- BERMEAK	
☒ Behin betiko bermea: % 5	Zenbatekoa: Adjudikazioa
☐ Berme osagarria:	Zenbatekoa:



F.- KAUDIMEN EKONOMIKOA EDO FINANTZARIOA

Urteko negozio-bolumena: amaitutako azken hiru urteetako negozio-bolumen handieneko urteari dagokio, eta kontratuaren urteko batez besteko kuota bezainbeste izan beharko da gutxienez behin. (50.000 €).

G.-KAUDIMEN TEKNIKOA ETA PROFESIONALA

Azken hiru urteetan egindako lanen zerrenda, kontratuaren xede direnen berberak edo antzekoak, egikaritze onaren ziurtagirien bidez abalatuta. Halaber, gauzatze handieneko urtean metatutako urteko zenbatekoa kontratuaren batez besteko urteko kopuruaren % 70 edo gehiago izan beharko da. (70.000,00 €).

Azken hiru urteetan ardurapean izandako gutxienez hiru Kontrol eta Zaintza Unitateren zerrenda jaso beharko da.

☒ Enpresa sortu berrien kaudimen teknikoak:

Kaudimenean eskatzen den esperientzia ez da kontuan hartuko kasu horietarako. Bai, ordea, gainerako eskakizunak.

LANBIDE-GAIKUNTZA

ENPRESA-SAILKAPENA

ENPRESA-SAILKAPENA ☐ Bai, hautazkoa ☒ Ez

H.- LIZITATZAILEEK AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA

1.- 1. gutun-azala: Erantzukizunpeko adierazpena eta balio-judizioen araberrako irizpideei buruzko dokumentazioa.

2.- 2. gutun-azala: Automatikoki kuantifikatzen diren irizpideen dokumentazioa.



BALIO-JUDIZIOEN ARABERAKO IRIZPIDEEI BURUZKO DOKUMENTAZIOA

Lizitatzailleek eskatutako dokumentazioa duen memoria gehituko dute. Hala, bi ataletan banatuta egongo da: bata, "Memoria teknikoa eta gauzatze-metodologia" izenekoa, eta bestea, "Kontratuaren esku jarritako baliabide teknikoak eta giza baliabideak" izenekoa.

Memorian onartuko den gehieneko orrialde-kopurua (bi aldeetan idatzita) berrogei izango da, ezaugarri hauekin:

- DIN–A4 tamaina
- Letra-mota eta gutxieneko tamaina: ARIAL, 10 puntu
- Gutxieneko lerroarteak: bakuna
- Gutxieneko goiko eta beheko marjinak: 2,5 cm
- Gutxieneko ezkerreko eta eskuineko marjinak: 2 cm

Ezarritako gehieneko orrialde-kopurua gainditzen bada, ez da kontuan hartuko 40. orrialdetik aurrera agertzen den informazio guztia.

Beste berrogei orrialdeko eranskina sar daiteke (aurreko ezaugarri berberekin), memoria deskribatutakoa egiaztatzen edo osatzen duen informazio gehigarria sartzeko.



**AUTOMATIKOKI KUANTIFIKATU DAITEZKEEN IRIZPIDEEN BALIO-JUDIZIOEN MENDE
JARRITAKO IRIZPIDEEI BURUZKO DOKUMENTAZIOA**

Eskaintza ekonomikoa. Lizitatzailleak edo bere ordezkariak sinatuta egon beharko da eta zehatz eta mehatz idatzita egon beharko da l. eranskineko ereduari jarraikiz. Eskaintako prezioan zerga guztiak barne egon beharko dira, BEZa izan ezik.

Eskaintza ekonomikoa hauekin osatuko da:

a) Prezioen zerrenda.

Lizitatzailleek ondoren zehazten diren elementu guztien prezio unitarioak adierazi beharko dituzte, zenbatekoan kontzeptu guztiak sartuta (BEZik gabe), eta, beraz, egindako lanei eskaintako prezioak aplikatzearen ondoriozko zenbatekoak ordainduko dira.

Prezio unitarioen taula erantsiko da, taula honetan deskribatutako unitateen arabera.

Prezio unitarioen zerrenda:

Prezio-zk.	KONTZEPTUA	Unitate-zk.	Prezio unitarioa	Zenbateko partziala
1	Kontratuak irauten duen bitartean (bi urte) laguntza teknikoko lan guztiak egiteko dagokion zenbatekoa, deskribatutako zeregin ohiko eta egonkorretarako.	1		
2	Puntako lan-egoeretan aparteko laguntzako lanen orduko zenbatekoa.	60 ordu		
Gutzizko zenbatekoa, kontratuak irauten duen bi urteetan (€)				

Prezio horietan kontzeptu guztiak sartuko dira, BEZa izan ezik. Zenbateko partzial bakoitza kalkulatzeko, prezio unitarioa taula horretan zehaztutako unitate-kopuruarekin biderkatuko da. Kontratuaren zenbateko osoa kalkulatzeko, aurreko taula betez ateratzen diren bi zenbateko partzialen batura hartuko da kontuan.

I.- ESKAINTZAK AURKEZTEKO LEKUA ETA EPEA

- 1.- Eskaintzak aurkezteko epea: Kontratatzaillearen profilean adierazitakoa
 - 2.- Eskaintzak aurkezteko lekua (bakarrik administrazio-baldintza berezien pleguaren 13. klausulan xedatutakoa ez bada):
 - 3.- Eskaintzak elektronikoki aurkeztea ☒ BAI ☐ EZ
- Eskaintza elektronikoak aurkezteko plataforma elektronikoaren helbidea:
<https://contratacion.consortiodeaguas.eus/site/3?language=eu>

J.- KONTRATAZIO-MAHAIA EDO ADITUEN BATZORDEA

Kontratazio-mahaia

Presidente/Ordezkoa:
Ekaitz Mentxaka Corral jauna.



J.- KONTRATAZIO-MAHAIA EDO ADITUEN BATZORDEA

Kideak (titularrak/ordezkariek):
Mikel Magunazelaia Pinaga jauna.
Xabier Orue Moro jauna.
Itziar Zarate Urrutia andrea.
Gerardo Latorre Pedret jauna.
Jose Manuel Pereda Renobales jauna.

Idazkaria:
Gerardo Latorre Pedret jauna.

Adituen batzordea

K.- ADJUDIKAZIO-IRIZPIDEAK

1.- Adjudikazio-irizpideak:

Hauek dira baloratzeko alderdi gisa lehiaketa adjudikatzeko oinarritzat erabiliko diren irizpideak:

AUTOMATIKOKI KUANTIFIKATU DAITEZKEEN IRIZPIDEAK: 75 PUNTU

Irizpide honetan lortu ahal den gehieneko puntuazioa 75 puntukoa da.

Horretarako, hurrengo formula matematikoak erabiliko dira. Emaizta K_1 koefizientearekin biderkatuko da eta honen berdina izango da:

$$K_1 = 75/50$$

Eskaintza ekonomikoak eskaintza bakoitzaren baja-ehunekoarekiko (B_i) proportzioan baloratuko dira formula matematikoekin. Balio hauek esleituko dira:

Bmax	50 puntu
$(B_{max} + BM) / 2$	48 puntu
BM	47 puntu
$0,8 \times BM$	46 puntu
$0,6 \times BM$	44 puntu
Lizitazio-aurrekontua	0 puntu

Puntu horien balioak aurretik adierazi den K_1 koefizientearekin biderkatuko dira.

Non:

- B_i : Eskaintzaren baja-ehunekoa, hau da, lizitazio-aurrekontuaren eta eskaintzaren zenbatekoaren arteko diferentziaren emaitza lizitazio-aurrekontuaren artean zatituta eta ehunekotan adierazita.
- Bmax: Gehieneko baja-ehunekoa, eskaintza ekonomikoenari dagokiona.
- BM: Batez besteko baja-ehunekoa. Hau da, lizitatzailer bakoitzaren baja-ehunekoen batez besteko aritmetikoaren emaitza.

Gainerako eskaintzen puntuazioa eskuratzeko linealki interpolatuko da aurretik azaldu den puntuen banaketa.

Modu horretan, B_i bakoitzari esleitutako P_i puntuazioa honi dagokiona da:

Baldin eta $0 < B_i \leq 0,6 \times BM$

K.- ADJUDIKAZIO-IRIZPIDEAK

$$P_i = \frac{B_i}{0,6 \times BM} \times 44$$

Baldin eta $0,6 \times BM < B_i \leq 0,8 \times BM$

$$P_i = 44 + \frac{(B_i - 0,6 \times BM)}{0,2 \times BM} \times 2$$

Baldin eta $0,8 \times BM < B_i \leq BM$

$$P_i = 46 + \frac{(B_i - 0,8 \times BM)}{0,2 \times BM}$$

Baldin eta $BM < B_i \leq (BM + B_{max}) / 2$

$$P_i = 47 + \frac{(B_i - BM)}{(B_{max} - BM)} \times 2$$

Baldin eta $(BM + B_{max}) / 2 < B_i \leq B_{max}$

$$P_i = 48 + \frac{(2 \times B_i - BM - B_{max})}{(B_{max} - BM)} \times 2$$

Formula horien bitartez eskuratutako P_i puntuazioaren emaitza guztiak aurreko K_1 koefizientearekin biderkatuko dira.

BALIO-JUDIZIOEN MENDE DAUDEN IRIZPIDEAK 25 PUNTU

1-Exekuzioaren memoria teknikoa eta metodologia..... 10 puntu

- Adjudikaziodunak proposatutako uraren osasun-planaren eredua egokitzea hornidura-eremu baterako5 puntu
- Kontratuaren xedean deskribatutako zeregin guztiak egiteko proposamen teknikoaren egokitzapena5 puntu

2-Baliabide teknikoak eta giza baliabideak..... 15 puntu.

- Kontratuaren esku jarritako giza baliabideen deskribapena (titulazioa, giza taldea, ordezkapena behar izanez gero edo aparteko lanak egiteko)... 7,5 puntu



K.- ADJUDIKAZIO-IRIZPIDEAK

- Prestakuntza-jardueren proposamena, laguntzako ohiko langileentzat, kontratuaren funtsezko lanak egingo dituztenentzat (baldintza teknikoaren pleguko 4. apartatua adierazitakoaren arabera)..... 2,5 puntu
- Lanak behar bezala egiteko langileen eskura dauden bitarteko materialen deskribapena 5 puntu

2.- Berdinketak hausteko irizpideak:

Eskaintzen arteko berdinketak hausteko ordena honetan aplikatuko dira gizarte-irizpideak, zehazki, eskaintzak aurkezteko epean indarrean daudenak:

- a) Enpresak desgaitasuna duten edota gizarte-bazterketa egoeran dauden langileen ehuneko handiagoa edukitzea; berdinketaren kasuan, lehentasuna izango dute plantillan desgaitasuna duten langile finko gehiago dutenek edota gizarteratze-egoeran dauden langileen kopuru handiagoa dutenek.
- b) Enpresako langileen artean aldi baterako kontratuen ehuneko txikiena duena.
- c) Enpresako langileen artean emakume enplegatuen ehuneko handiagoa izatea.
- d) Zozketa egingo da, aurreko irizpideekin berdinketa hautsi ez bada.

3.- Ohi baino baxuagoak diren eskaintzak kontuan hartzeko irizpideak:

Eskaintza bat ohi baino baxuagoa izango da kasu hauetakoren bat betetzen denean:

- Lizitatzailerik bakarra dagoenean eta lizitazioaren oinarritzko aurrekontua baino 25 ehuneko-puntu txikiago denean.
- Bi lizitatzailerik daudenean, beste eskaintzaren aldean 20 ehuneko-puntu txikiago denean.
- Hiru lizitatzailerik daudenean, aurkeztutako eskaintzen batezbesteko aritmetikoarekiko 10 ehuneko-puntu baino gehiagotan txikiagoak direnean. Hala eta guztiz ere, batezbestekoa kalkulatzeko eskaintzarik garestiena alde batera utziko da, batezbestekoa baino 10 ehuneko-puntu handiagoa bada eta bakar-bakarrik ausarkeria-atalase berria ezartzeko ondorioetarako. Inolaz ere ez dio eragingo ezarritako sailkapen-ordenari. Nolanahi ere, neurritz kanpokotzat joko da aldea 25 ehuneko-puntu baino handiagoa bada.
- Lau lizitatzailerik edo gehiago daudenean aurkeztutako eskaintzen batez besteko aritmetikoarekiko 10 ehuneko-puntu baino gehiagotan txikiagoa direnean. Dena den, horien artean batez bestekoa 10 ehuneko-puntu baino gehiagotan gaitzen duten eskaintzak badaude, batez bestekoa kalkulatu da, bakarrik ustezko horretan ez dauden eskaintzekin. Kalkulu horren xede bakarra izango da ausarkeria-atalase berria ezartzea eta inolaz ere ez dio eragingo ezarritako sailkapen-ordenari. Edonola ere, gainerako eskaintzen kopurua hirutik beherakoa bada, batezbesteko berria hiru eskaintza merkeenekin kalkulatu da.

Talde bereko enpresen eskaintzak aurkeztu badira, baxuegiak izateagatik susmagarriak diren eskaintzak identifikatzeko araubidean, bakar-bakarrik hartuko da kontuan eskaintzarik baxuena, eskaintza banaka edo taldekoak ez diren, baina aldi baterako elkarte gisa jarduten duten beste enpresa edo enprekin batera aurkezteko gorabehera.

4.- Lizitatzailerik hautaketa-prozesuan jarraitzeko beharrezkoa den gutxieneko atalasea:

Baztertzeko arrazoia izango da eskaintzaren balorazio teknikoan **13 puntu** gutxienez ez lortzea.

L.- KONTRATUA BETETZEKO BALDINTZA BEREZIAK

Baldintza tekniko berezien pleguan adierazitakoak.

M.- ZEHAPEN ESPEZIFIKOAK

Baldintza tekniko berezien pleguan adierazitako kasuak eta ekintzak.

Zigorak:



M.- ZEHAPEN ESPEZIFIKOAK

Aldizkako bilerak egingo dira, kontratuaren betearazpenaren jarraipena egiteko eta hileko zereginak planifikatze aldera. Hilabete horretarako planifikatutako lanak entregatzen atzeratzen den bakoitzeko, ziurtagiri horretan ordaindu beharreko zenbatekoen % 10eko zigorra aplikatuko da.

Hileko ziurtagiriaren zenbatekoaren % 5eko zigorra ezarriko da, baja eragiten duten langileen ordezkapenak hamar egutegi-egun baino gutxiagoko epean egiten ez badira, justifikatutako arrazoirik gabe.

N.- ADJUDIKAZIODUNAK AURKEZTU BEHARREKO ERANTZUKIZUN ZIBILEKO ASEGURUA

Ziurtagiria, arrisku profesionalengatiko erantzukizun-asegurua baduela egiaztatzen duena.

Ñ.- KONTRATUA ALDATZEA

Ez da aplikatu behar

O.- AZPIKONTRATATZEKO AUKERA

Bai.

Azpikontratuak egiteko, honako baldintza hauek bete beharko dira:

Lizitatzailleek eskaintza teknikoan adierazi beharko dute azpikontratatu nahi den prestazioaren zatia. Hala, haien izena, harremanetarako datuak eta azpikontratataren legezko ordezkaria edo ordezkariak adierazi beharko dituzte, eta behar bezala justifikatu beharko dute hura gauzatzeko gaitasuna duela, dituen elementu teknikoei eta giza baliabideei eta bere esperientziari dagokienez. Halaber, eskaintza ekonomikoan, azpikontratatu den kontratuaren zatiaren zenbatekoa adieraziko da.

Gainera, enpresa-profila adieraziko da, kaudimen profesional edo teknikoko baldintzen arabera definituta, egiteko ardura emango zaien azpikontratatari dagokienez.

P.- SUBROGAZIOA

Bai. Administrazio-baldintza berezien pleguaren eranskina.

Q.- ERREKURTZO BEREZIA

☐ BAI ☒ EZ



KONTRATUA BETETZEKO BALDINTZAK

Kontratuaren arduradunak eta adjudikaziodunak kontratuaren jarraipena egiteko aldizkako bilerak egingo dituzte, bai eta datozen hilabeteetako zereginak planifikatzeko bilerak ere.

Adjudikaziodunaren kontura izango dira BBUPren eremuan bere langileek beren jarduera garatzean egiten duten lekualdaketaren ondorioz sortzen diren mota guztietako gastuak.

Kontratistaren ordezkaria

Kontratuaren adjudikaziodunak kontratistaren ordezkari bakarra izendatuko du, eta adjudikazioduna BBUPrekin hitz egiteaz eta bere lantaldea zuzentzeaz arduratuko da.

Halaber, lanen garapenean sortzen diren zalantzak argitzeko kontsultak egingo ditu.

Kontratuen jarraipena eta elkarrizketa egiteko antzeko zereginetan bi urtetik gorako esperientzia duen ordezkaria izendatu beharko da.

Kontratistak, egin beharreko lanen gauzatzean, hauetan guztietan jasotako betekizunak bete beharko ditu: Lan Arriskuen Prebentzioari buruzko 1995eko azaroaren 8ko Legea, Lan Arriskuen Prebentzioari buruzko Legearen arauketa-esparruaren aldaketan (54/2003 Legea), 171/2004 Errege Dekretuan eta Lan Arriskuen Prebentzioaren arloan aplikatu beharreko arau guztietan jasotakoak.